



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioaren jaitsiera leundu zen abuztuan

Gizarte Segurantzako afiliazioaren abuztuko datuek adierazten dute estatistika horren urte arteko beherakadak bere horretan jarraitzen duela, baina aurreko hiru hilabeteetako baino erritmo motelagoan. Izan ere, ekainean %3,1 jaitsi zen eta uztailen %2,8, baina abuztuan %1,9ra mugaratu zen jaitsiera. Beherakadaren erritmoa oso esanguratsua izaten jarraitzen du, baina komeni da aipatzea 2009ko uztailera %4,3ko jaitsiera eta 2013ko otsailera %4,0koa baino txikiagoa dela, urte horietan izandako atzeraldi bikoitzaren in-

paktu handieneko datak baitira bi horiek. Gaur egungo krisiarekin alderatuta, enplegua aldi baterako arautzeko espedienteen erabilera da, pertsonak enpresei lotuta eusteko, nahiz eta BPGaren beherakada aurreko atzeraldietakoa baino askoz handiagoa izan.

Generoaren arabera azterketak iradokitzen du beherakadaren leuntzea handiagoa dela emakumeen artean (-%1,0) gizonen artean (-%2,6) baino eta hori kolektibo bakoitzak lan egiten duen jarduera sektorearekin lotuta dago.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

ABUZTUKO AFILIAZIOA


-%1,9



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Izan ere, industriak bereziki gizonei ematen die lana eta azken bi hilabeteetan ia ez du inolako hobekuntzarik ezagutu (-%4,5). Aldiz, zerbitzuetan, emakume langileen ehuneko oso handia biltzen baitute, urtetik urterako beherakada nabarmen txikiagoa izan da (-%1,3), eta neurri batean zuzendu da.

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa ia erabat suspertu da sektore publikoari lotutako adarretan izandako gorakadaren ondorioz: osasuna, hezkuntza eta administrazio publikoa. Aitzitik, manufakturako industriak, ostalaritzak eta merkataritzak pandemiaren ondorioak pairatzen jarraitzen dute, eta afiliazioak murrizten dituzte.

GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIAZIOAK

	2019ko abuztua	2020ko abuztua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	956.564	938.585	-17.979
Industria manufakturagileak	176.006	167.983	-8.023
Merkataritza	139.235	136.154	-3.081
Osasun arloko jarduerak	108.421	110.953	2.532
Hezkuntza	63.784	64.640	856
Administrazio jarduerak	66.254	64.043	-2.210
Ostalaritza	62.822	58.383	-4.439
Eraikuntza	56.629	56.509	-121
Lanbide jarduerak	55.604	55.634	30
Administrazio publikoa	47.611	48.107	496
Garraioa	42.592	41.896	-695
Etxeko langileak	29.719	28.626	-1.093
Bestelako zerbitzuak	26.303	25.348	-955
Informazioa eta komunikazioa	23.123	23.096	-27
Finantza jarduerak	17.954	17.452	-502
Jarduera artistikoak	14.650	14.364	-287
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.729	12.508	-221
Or horniketa	6.582	6.582	0
Higiezin jarduerak	4.124	4.170	45
Energia horniketa	1.791	1.523	-268
Erauzketa industriak	572	558	-14
Lurraldez kanpoko erakundeak	59	56	-3

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.